



*Gaurkoan LABekin batzartu da Monica Vargas, Trans National Instituteko kidea eta Herrien Burujabetza, Transnazionalen Botere Desegituea eta Inpunitateari Bukaera jartzea aldarrikatzen duen kanpainaren arduraduna. Ekintza Sozialeko Idazkari Bea Martxueta eta Urtzi Ostolozaga idazkari ondokoak bilera egin dute Vargasekin LABen Bilboko egoitzan.*

LABek, orain hiru urtetik parte hartzen dugu kanpaina honetan, eta gure konpromisoa berresten dugun honetan, gure babes politikoa adierazi nahi diogu kanpaina honi eta bere helburuei. Gaurkoan, Vargasen bidez, kanpaina momentu honetan zertan den jakin ahal izan dugu, eta horren araberrako erabakiak hartu gure parte hartzeari dagokionez.

Prozesu hau Euskal Herrira ekartzea da gure egiteko nagusia mundu mailako prozesuan parte hartuz, izan ere kapitalismo heteropatriarkalaren gehiegikeriak nazioartean eta gurean salatu behar ditugu, horrez gain, gainontzeko eragile sozial eta sindikalekin batera elkarlanean, kontraboterea antolatu behar dugu. Tresna politikoa izateaz ari gara. Tresna horren egitekoa, beharrezko arau eta legeak sortzea da enpresa handiak Giza Eskubideei eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturei guztiz loturik egon daitezen. Demokrazian sakondu beharra dugu modu erradikal batez, produkzioa eta lan eremua demokratizatu beharra dago, bizitza erdigunean jarriz, zerbitzu publikoen alde egin beharra dugu eta jendartearen oinarritzko beharrak bermatuarazi beharko dituzten administrazioak lortu behar ditugu. Elikadura eta energia burujabetzaren alde egin behar dugu, gure herrialdearen alde eta natur baliabide eta ingurumenaren alde.

Azken baten, herrien burujabetzaren alde eta eskubide kolektiboen alde egin behar dugu, pertsonon zerbitzura egongo den ekonomiaren alde, gure apustua, ekosozialismo feminista da.

Azkenik, gure parte hartzea iragarri nahi dugu aurrerantzean ere, bai transnazionalen gehiegikeriak epaitzen dituen Herrien Epaitegi Iraunkorrean (Bartzelonan ekainaren bukaeran) eta bai Nazio Batuen Erakundearen udazkenean ere, non juridikoki loteslea den tresna osatzen

ari garen transnazionalentzat eta beste enpresa batzuentzat giza eskubideekiko.

—